# AGENDA

2016



*kultur eta aisialdi*

# AGENDA

MAIATZA

## 1 IGANDEA
J. Barandiaran plazan 12:30

# PLAZA DANTZAK

Muxikoak, Jauziak, Branlea, Txulalai, Fandangoa, Arin-arina... dantza tradizionalak zuzeneko musikarekin, dantza gustuko duen haur, heldu zein gazteentzat.



**Antolatzailea:**
Astigar dantza-taldea.

*Sesión de bailes tradicionales abierta a todo las personas que quieran participar.*

## 5 OSTEGUNA
Kultur etxean



# BIGARREN PRINTZESA
## IPUIN KONTAKETA

- 18:00etan 3-5 urte bitarteko haurrentzat.
- 18:30ean 6-9 urte bitarteko haurrentzat



**Ipuin-kontalaria:**
Lur Korta.

*Hora del cuento para niños-as de 3 a 5 años a las 18:00 y para los-las de 6 a 9 años a las 18:30.*

7 **LARUNBATA**
Foru plazan

**11:00**

# EMUSIK
## EUROPAKO MUSIKARI GAZTEEN JAIALDIA

Europako Batasuneko 28 lurraldetako musika eta dantza eskoletako 20.000 ikaslek Donostia eta beste 76 herritan eskainiko dituzten kontzertuetako bat Astigarragan izango da:

- Bulgariako *Buditeli* taldea (abesbatza eta folk dantzak),
- Luxenburgeko *Perkussion Ensemble of teh AEM*,
- Talavera de la Reinako soka talde handia eta dantzariak eta
- Eslovakiako *Ostrvka* folk musika taldea.



**Antolatzaileak:** Donostia 2016, *EMU* Musika Eskolen Europako Elkartea, Norberto Almandoz musika eskola eta Astigarragako Udala.



*Festival de jóvenes músicos de Europa dentro del programa Donostia 2016, en el concierto de Astigarraga participarán jóvenes de Bulgaria, Luxenburgo, Talavera de la Reina y Eslovaquia.*

# SENDABELARRAK

Tailer irekiak euskara ikasten ari direnentzat
eta euskaldunentzat.

**4** Kultur etxean 09:30ean. 5 €.

**19/26** Nabarra Oñatz kaleko lokalean 19:00etan. 10 €.

**Antolatzailea:** Udaleko Euskara saila
**Izenematea:** zilegieskola@aek.eus
edo AEK euskaltegian
(663 04 33 14)




*Taller en euskara, abiertos a euskaldunes y a personas que están aprendiendo euskara.*

# ZAHARREN OMENALDIA

80 urtetik gorako astigartarrei Gure Izarra elkarteak Udalaren babesarekin antolatua, aurtengoa XXXVI. edizioa izango da.

- **09:30** Txirriskla taldeko txistularien diana.

- **11:30** Txaranga.

- **12:45** Meza Txomiñenea pilotalekuan, ondoren Aiztondo abesbatzaren eta Astigar taldeko dantzarien emanaldia eta 14:30ean bazkaria, opari-banatzea eta Alberro anaien soinu emanaldia Gure Izarra elkartean.



*XXXVI edición del homenaje a las personas mayores de 80 años. La misa será a las 12:45 y la comida y entrega de premios a las 14:30 en la sociedad Gure Izarra.*

# 12-15 V. ILAR EGUNA

**Baratz elkarteak Udalaren babesarekin antolatua.**



**12** **Ilar pintxopotea** Astigarragako tabernetan eta 21:30ean pintxo onenaren saria emango da.

**13** **Baratzen bisita** Astigarragako Herri Eskolako eta inguruko ikastetxeetako ikasleekin 9:00etan.

- **Hitzaldia**: *Haziaren garrantzia nekazaritzaren historian*, 18:30ean udaletxean.
- **Ilar dastatzea** kontzejupean Charo Zapian eta Roberto Ruizekin 19:30ean.

**14** **Baratzen bisita** 11:00etan udaletxeko kontzejupetik abiatuta eta 14:30ean Roxario jatetxean ilar menu berezia.

**15** **Txistularien diana** berezia 9:00etan.

- **Ilar-azoka** eta Euskal Herri osoko produktuak salgai Foru plazan 10:00etan hasita.

*V Jornada del guisante. El día 12 pintxopote de guisantes, el día 13 visita de la ikastola a las huertas, charla sobre la importancia de las semillas en la agricultura y degustación de guisantes, el día 14 visita guiada a las huertas y menú de guisantes en Roxario y el día 15 diana de txistularis y Feria del Guisante y otros productos.*

# 15 IGANDEA

# SAN ISID

Foru plazan Goldea herri kirol elkarteak Udalaren babesarekin antolatua.

**09:30** **Xapre trikitilariak.**

**10:00** **Prozesioa, meza** eta ondoren hamaiketakoa Gure Izarra elkartean.



2015

**12:30** **Idi demak:** Loiuko I. aurrekoetxea eta Kantabriako A. Cotareloren idi pareak 3.298 kiloko harriarekin.

Egunean zehar Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso **bertsolariak.**

**14:30** Bazkaria eta baserritar zaharrei **omenaldia** Gure Izarra elkartean.

**18:00** **Idi gazteen erakusketa** Errenteriako JM. Matxain eta Hondarribiko A. Pagadizabalen idi pareak 1.495 kiloko harriarekin.

*Numerosas actividades organizadas por Goldea*
*prueba de bueyes, bertsolaris, comida popular y*
*de bueyes jóvenes. Amplio programa t*

# ORO JAIA

Zamalbide Bentak auzoan auzo-elkarteak antolatua.

**10:45** **Prozesioa** elizaren inguruan eta 11:00etan **meza.**

**11:45** **Bertsolariak** (Maialen Akizu eta Xamoa) eta salda eliz-atarian

**13:00** **Auzoko I. pala txapelketako finala.**

**14:00** Lagunarteko **bazkaria** Auzolan elkartean.

**18:00** **Idi probak:** Intziñarte, Matxain eta Aburuza 1.250 kiloko harriarekin. Sarrera doan.

**Maiatzak 14.** **Haur eta gazteen eguna:** 10:30ean jolasak, puzgarriak eta tailerrak, 13:30ean haur bazkaria, 15:30 Pello Añorga ipuin-kontalaria, 16:00etan mus-txapelketa, 16:30ean apar-festa edo tailerrak, eguraldiaren arabera, 18:00etan txokolate-jatea, 20:30ean afari herrikoia musikarekin alaituta.

**Maiatzak 22.** **Erretiratuen eguna:** 12:00etan meza, 13:00etan Andoni Egaña, Maialen Akizu eta Xamoa bertsolariak eta salda eliz-atarian, 14:00etan erretiratuen omenezko bazkaria musika eta bertsolariekin eta 18:00etan herri kirol jaialdia, sarrera doan.

*a el día de San Isidro: trikitixa, procesión, misa,*
*y homenaje a baserritarras y por la tarde prueba*
*ambién en el barrio Zamalbide Bentak.*

18 **ASTEAZKENA**
Ikastolako aretoan **18:30**

# GENERO IKUSPEGIA GAUR EGUNGO ESKOLAN

## HITZALDIA

**Hizlaria**: Ana Azkona Arzelus psikopedagogoa.
Zer da sexu-generoa?. Begirada hezkidetzailea gure seme-alabekin. Eskola hezkidetzailearen erronkak. Nola hazi hezkidetzaile izaten? Esku hartzeak.
Astigarragako Herri Eskolako guraso elkarteak antolatu eta udaleko Hezkuntza sailak babestua.



*Charla en euskara sobre la perspectiva de género en la escuela actual.*

## 21 LARUNBATA
Joseba Barandiaran plazan **10:30**

# PINTURA-ERAKUSKETA



Astigarte elkarteko pintura ikasleak plazan margotzen arituko dira eta ikasturteko margolanak ikusgai jarriko dituzte.
13:00ak arte haurrentzako arte-txoko irekia izango da eta Astigarte elkarteak antolatutako logotipo lehiaketaren irabazlea ezagutzera emango da (oinarriak kultur etxean eskuragarri).

*Exposición y trabajos de pintura al aire libre, taller abierto para niños-as y se dará a conocer el-la ganador-a del concurso del logotipo de Astigarte.*

## 23 ASTELEHENA
Liburutegian **19:30**



# LITERATUR SOLASALDIA

Jorge Carrerok zuzenduta, hilabete honetan Juan José Millas idazlearen *"Desde la sombra"* liburuaren ingurukoa izango da. **Hizkuntza**: espainola.

*Charla literaria.*

24 **ASTEARTEA**
Kultur etxean

18:00

# NESKATOAK
## ZINE FORUMA

Frankismoaren urterik gogorrenetan emakume askok Ipar Euskal Herrira zein Frantziako bertze hainbat tokitara joan behar izan zuten neskame lanetan aritzera, familia utzi eta maiz, mendiz joan ziren, gordeka. Lanaldi luzeak, pasaporterik gabe, lanerako baimenik gabe eta frantsesik jakin gabe.
Gaur egungo migrazio-prozesuetan bezala, emakumeek paper aktiboa izan zuten orduko gizartean, bertan gelditzen ziren gurasoei eta etxekoei ekonomikoki berebiziko laguntza eman baitzieten.



**Iraupena:**
60 min.
**Antolatzailea:**
Harituz.
DOAN

*Proyección y charla sobre el documental que recoge el testimonio de 15 mujeres que para huir de la miseria tuvieron que marcharse a Iparralde y Francia entre 1950 y 1970 a trabajar como sirvientas. Entrada gratuita. Idioma: subtítulos en español.*

28 **LARUNBATA**
Joseba Barandiaran plazan **12:00-14:00**

# III. ANIZTASUN ASTEA

Udalaren web-aren bidez emango dira ezagutzera astean zehar antolatuko diren ekitaldiak. Bukaera gisa larunbatean herri ugaritako janaria dastatu eta zuzeneko musika entzuteko aukera izango da.

**Antolatzailea:** udaleko Gizarte Zerbitzuak.




*Semana de la diversidad con numerosas actividades (ver en la web municipal).*

## 28 LARUNBATA
Sagardoetxeko sagastian 17:30

# LUIS ETA EUGENIAREN BIKIAK
## KONTZERTU ANTZEZTUA



Astigarragako Murgia jauregiko markesaren familia eta Santiagomendiko baserri bateko familia baten arteko istorioa irudikatuko da antzerkia, musika eta dantzaren bitartez. Ikuskizunean Norberto Almandoz musika eskola, Astigarragako antzerki-eskola eta Astigar dantza taldeko haurrek hartuko dute parte.

*Música, teatro y bailes a cargo de alumnos-as de la musika eskola, Astigar y la escuela de teatro de Astigarraga.*

## 31 ASTEARTEA
Ikastolako aretoan 17:00

# HAURREN BERTSO JAIALDIA

Astigarragako Herri Eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek, udalak sustatutako "Gu ere bertsotan" ekimenaren barne, bertso-jaialdia eskainiko dute.

*Actuación de bertsos de los-as alumnos-as de 5º y 6º de la ikastola.*

# LABUR

**AISIALDIKO GIDA,** haurrek udan Astigarragan dituzten jardueren eskaintza jasotzen duena, eskuragarri egongo da maiatzaren 6tik aurrera kultur etxean, musika eskolan eta kiroldegian.

**JOLAS TAILERRA** 14:30ean maiatzaren 10, 17 eta 12 eta 19an bi eta zortzi urte bitarteko haurren gurasoentzat ikastolan Udaleko euskara sailak antolatua. Izenematea ikastolan bertan.

**IKASLEEN ANTZERKI EMANALDIAK,** Astigarragako Herri Eskolan 17:15etik aurrera ikasleen eskutik: maiatzaren 12an LH1 eta LH2, maiatzaren 17an LH3, LH5 eta LH6, maiatzaren 24an LH1 eta LH2, maiatzaren 25ean LH3 eta LH4 eta maiatzaren 26an LH5 eta LH6. Hilaren 12 eta 24koak psikomotrizitate gelan eta gainontzekoak ikastolako aretoan.

**NORBERTO ALMANDOZ MUSIKA ESKOLAKO ATE IREKIAK** maiatzaren 14an 11:00etan eta kontzertu pedagogikoa instrumentuak ezagutu eta probatzeko musika eskolan eta elizan.

**BAPO KANTARI III** maiatzaren 13an Petritegi sagardotegian 20:00etan musika eskola eta ikastolako guraso eta irakasle talde batek antolatutako kantu eta bertso afaria. Aurtengo berrikuntza: euskal kantu tradizional erotikoak! Txartelak salgai: sagardotegian eta Petri Tabernan.

**ERLEEN BIZIMODUA** ezagutzeko aukera Sagardoetxean maiatzaren 18an, museoen nazioarteko eguna ospatzeko gainera, sarrera doakoa izango da. 11:30ean euskaraz eta 12:30ean espainolez. Izenemateak: info@sagardoetxea.com / 943 550 575.

**KZ GUNEA.** Maiatzaren 2, 16 eta 30ean dinamizatzailea 16:00etatik 20:00etara bertan egongo da.

# L A B U R

*Guia de ocio con las actividades que los-as niños-as de Astigarraga pueden hacer en verano en Astigarraga, disponible a partir del 6 de mayo en kultur etxea, musika eskola y polideportivo.*

*Taller de juegos en euskara a las 14:30 los días 10, 17 y 12 y 19 de mayo para los padres y madres de niños-as entre 2 y 8 años en la ikastola organizado por el departamento municipal de Euskara. Inscripción en la ikastola.*

*Actuaciones de teatro de los-as alumnos-as en Astigarragako Herri Eskola a partir de las 17:15 12 de mayo LH1 y LH2, 17 de mayo LH3, LH5 y LH6, 24 de mayo LH1 y LH2, 25 de mayo LH3 y LH4 y 26 de mayo LH5 y LH6. Los días 12 y 24 en el aula de psicomotricidad y el resto en la sala grande de la ikastola.*

*Puertas abiertas en Norberto Almandoz musika eskola el 14 de mayo a las 11:00. y concierto pedagógico para conocer los instrumentos y probarlos, en la musika eskola y la iglesia.*

*Bapo kantari III el 13 de mayo en la sidrería Petritegi a las 20:00, cena con bertsos y cantos en euskara organizada por un grupo de padres, madres y profesores-as de la ikastola y la musika eskola. La novedad de este año serán los cantos vascos tradicionales eróticos. Venta de tikets en la sidreria o el bar Petri.*

*Actividades para conocer el modo de vida de las abejas en Sagardoetxea el día 18 de mayo, día internacional de los museos, por lo que la entrada será gratuita. A las 11:30 en euskara y a las 12:30 en español. Inscripciones: info@sagardoetxea.com / 943 550 575.*

*KZ Gunea. Los días 2, 16 y 30 de mayo la dinamizadora estará de 16:00 a 20:00.*

AGENDA

## SARREREN SALMENTA

kultur etxean emanaldiaren astean
eta egunean bertan ordubete lehenago.
On-line erosteko aukera
www.astigarraga.eus

## *VENTA DE ENTRADAS*

*En la casa de cultura durante la semana*
*o una hora antes del inicio.*
*On-line en www.astigarraga.eus*

www.euskera.buruntzaldea.org/euskara/agenda

Astigarragako Udala

Astigarragako kultur etxea
943 33 50 64

AGENDA

M A I A T Z A